
EGUNEKO ARRETA EGOITZA JENDAURREAN ZABALTZEA

Alkate eta Gizarte Zerbitzuetako batzordeburu den Mainer Lainezek jakitera eman nahi du "datorren astelehenean, maiatzaren 16an, zerbitzu berria jarriko dugula herritarren esku, alegia, zabalduko dugula Eguneko Arretarako Egoitza berria Ambrosia Olabide Gizarte Zerbitzuen eraikineko lehen solairuan. Egoitza hori adin handikoentzat urrats berria da eurei eskainitako egitarau eta zerbitzuen garapenean, eta gizatalde horri eskaintzen diogun arretaren ibilbidea osatu eta aberasten du."

Alkateak adierazi duenez "egoitza martxan jartzea Udal honek egiten duen apustu garbia da gure adin handikoek bizitza ekinzalea eta parte-hartzailea egiteko aukera izan dezaten. Topaleku izango dute, harremanetarako gune, adin handiko pertsonen autonomiari eusten laguntzeko."

"Pertsona autonomoentzako edo 1. mailako mendetasuna dutenentzako baliabidea da, goizetan bertara joan daitezen, 3 ordu egunean. Egoitzan, besteak beste, euren burua zaindu eta osasunari eusteko ariketa eta jarduerak egingo dira, baita bizkortze kognitiboa eragitekoak ere eta, bide batez, aisia edo jolasak, besteak beste. Halaber, asteazkenetan *Ibili Andoain* deituriko ekintzan parte hartuko dute" azpimarratu du Lainezek.

Azkenik, alkateak adierazi du "Jokin Murua izango dela zerbitzu honen buru (Lahar Elkartearen enpresa esleipenduneko langilea) eta bera arduratuko da bertaratzen diren herritarrei arreta emateaz eta egitarauak garatzeaz". Informazio gehiago nahi izanez gero, deitu 943 304 343 telefono zenbakira eta egin Ana Sanz edo Jokin Muruaren galdera.

Andoain, 2022ko maiatzaren 13an.

INAUGURACIÓN DEL CENTRO DE ATENCIÓN DIURNA

Maidier Lainez, alcaldesa y presidenta del Departamento de Servicios Sociales quiere informar que "este lunes, 16 de mayo se comenzará a prestar un nuevo servicio a la ciudadanía, que es el "Centro de Atención Diurna" ubicado en la primera planta del edificio de Servicios Sociales Ambrosia Olabide. Este centro supone un paso más en el desarrollo de programas y servicios dirigidos a personas mayores y completa y complementa el itinerario de la atención de este colectivo".

La alcaldesa ha manifestado que "esta apertura es una apuesta de este Ayuntamiento, para que nuestras personas mayores mantengan un vida activa y participativa. Un lugar de encuentro y un espacio para relacionarse y contribuir al mantenimiento de la autonomía de las personas mayores".

"Es un dispositivo para personas autónomas o con nivel 1 de dependencia al que acudir durante las mañanas, 3 horas al día y en el que se realizarán actividades de promoción de la salud y de mantenimiento y estimulación cognitiva, así como ocio o juegos, entre otros. Los miércoles tomarán parte también en el programa Ibili Andoain" ha destacado Lainez.

Por último, la alcaldesa ha indicado que "al frente de este centro estará Jokin Murua (personal de la empresa adjudicataria Lahar Elkartea), quien se encargará de la atención de estas personas y de la puesta en marcha de los diferentes programas". Para mayor información, llamar al 943 304 343 y preguntar por Ana Sanz o Jokin Murua.

Andoain, 13 de mayo de 2022